

# BERRIGARA

101. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, uztailak 21

AZPEITIKO  
BERGARARRA

## Patxi Azkargorta

OPEL VECTRA BERRIA



*merit*

GUTXIK EMATEN DUTE  
HAINBESTE HAIN GUTXIREN  
TRUKE.

OPEL BANATZAILE OFICIALAK,  
ESPERIENTZIAZ ONENAK.

OPEL

TALLERES  
**OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g.  
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46  
BERGARA (Gipuzkoa)

# ELKAR

## ELEKTRAGINTZA

Zure  
zerbitzura!!

Mota guztietako instalazioak



76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.  
**BERGARA**



# LILURA

Edertze Institutua

Bidekurutzeta, 7 BERGARA  
☎ 76 31 71

**ABUZTUKO ORDUTEGIA:**

- Goizeko 9etatik  
arratsaldeko  
6ak arte jarraian

## Z E B E R R I D A ?

### SONIA SUBERBIOLA


#### Turismo Bulegoko arduraduna

- Zer nolako harrera izan duzue orainarte Turismo Bulegoan?

- Nahiko ona. Guztira, uztailaren 5etik hona 181 kontsulta izan ditugu eta abuztua hurbiltzen den heinean uste dut bisitek gora egingo dutela. Orainarte jasotako bisiten artean, atzerriko zein Estatuko bisitarien kopurua nahiko antzekoa izan da. Atzeritarren artean, beljiarrak, hegoamerikarrak, estatu batuarrak, italiarrak edota Txinako turistak hurbildu zaizkigu eta, Estatuko bisitei dagokinez, gehienak andaluziarrak eta naparrak izan dira. Oraingoan katalanak ez dira hainbeste etorri.

- Bisitariak zeregan agertzen dute interes gehien?

- Turismo kulturala



denez, artea eta kultura interesatzen zaie batipat eta horren barruan San Pedroko Santo Kristoak, Riveraren koadroak edota Erret Mintegiak interes berezia dute. Bestalde, gogoratu egunean bi bisita gidatu antolatzen ditugula eta turistez gain, herritarrei ere beharrezko informazioa emateko prest gaude Kristina Romero eta biok.

**"Abuztua hurbildu ahala bisitari gehiago izango ditugu herrian"**

## I T U R R I O N E T I K

### Abuztuko bidaietan joan den urtearekiko gorakada eman da aurten

Halcón Viajes eta Viajes Ecuador agentzietatik adierazi digutenez, bergarar gehienek Balear eta Kanarietako irlak aukeratu dituzte beren oporraldia igartzeko. Atzerriko irteeren artean, berriz, Europa Erdialdea, Londres (gazteak batez ere) edota Futuroscope dira aukeratuenak. Bidaia luzeetan, azkenik, Kuba, Hego Amerika, Nueva Zelanda, Kanada edota, exotikoen artean, Isla Margarita (Venezuela) eta Vietnam izan dira arrakastatsuenak. Agentziek emandako informazioaren arabera, joan den urtearekiko aurten gorakadatxo bat eman da kontratatutako bidaiari dagokienez.

## E S A N D U T E

"EHNEko lana utzi ondoren, EHNEtik lehen ematen genituen gomendioak orain gure baserrian praktikan jartzen saiatzen naiz. Alde hortatik oso lan interesgarria iruditzen zait. Bestalde, orain Bergarako Udaletxean zinegotzi kargua daukat eta hor herriaren aldeko lana egitea da gure helburu nagusia"

**MAITE ARISTEGI**  
Baserritarra eta HBko zinegotzia EUSKADI IRRATIA

"Ez, ez ditut Realak ekarri dituen atzeritarrak ezagutzen. Gaur bostekoa eman ondoren ezagutu ditut baina oraindik ez dakit nolakoa izan daitekeen beren aportazioa. Dena den, nahiko talde interesgarria osatu dugula uste dut. Ikusi egin behar... Asmoak? Pertsonalki pozik nago iaz lortutakoarekin eta hurrengo denboraldian bide beretik jarraitzea gustatuko litzaidake"

**AGUSTIN ARANZABAL**  
Realeko jokalaria EUSKADI IRRATIA

BERRIGARALDE JAUREGIA  
20570 Bergara  
Telefonoa eta Faxa: 76 03 97

#### Argitaratzailea:

ARDUN Elkarte.  
Musterreka, 13 Bergara.  
Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

#### Zuzendaria:

Eneko Azkarate  
Erredakzioa:  
Eduardo Mendibil  
Mikel Elkorobereizabar  
Eneko Larrañaga

#### Maketazioa:

Eneko Azkarate

#### Publizitatea:

Alex Azkarate

#### Harpidetzak:

Borka Elorza

#### Testuen zuzenketa:

Estapan Plazaola

Mampi Laskurain

Alex Labaien

#### Erredakzio kontseilua:

Borka Elorza

Miguel Angel Elkorobereizabar

Alex Labaien

#### Komikiak:

Rosario Rodriguez

Borka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugaldel

Borka Azkarate

#### Banaketa:

Erantxangorri taldea

#### Irada:

1000 ale.

#### Primategia:

Berri Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

#### Copyright:

BERRIGARA

#### Lege gordailua:

13/50/91

#### ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

**RAPIDA Y MORTAL**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 22.30.

**MUJERCITAS**

Asteartea: 17.00, 19.30, 22.30.

Asteazkena: 19.30.



## Zinea

### ▼▼ Sharon Stone

(*Instinto básico*) eta **Gene Hackman** (*Sin perdón*) aktore ezagunek egindako western honetan mendeku baten historia kontatzen zaigu. *Ellen* (**Sharon Stone**) *Redemption* hirira joango da bere bizitza amesgaizto bat bihurtu duen *Herod* (**Hackman**) gaizkileari aurre egiteko. Han, pistolarekin duen abilezia azaldu beharko du hil ala biziko duelo batean.

### ▼▼ Louise May Alcott

idazlearen nobela klasikoa oinarritzat harturik zinerako egindako azken bertsoia. XIX. mendean kokatua, *March* familiaren bizitzaren gorabeherak azaltzen zaizkigu. Alaba-neskatxen paperetan **Winona Ryder**, **Trini Alvarado**, **Claire Danes** eta **Kristen Dunst**. **Susan Sarandon** amak familiaren batasunari eutsiko dio.

▼▼ **Virago** antzerki taldeak "Las criadas" izeneko bere bigarren antzeslanaren aurre estreinaldia egingo du zapatu honetan Zabalotegiko aretoan gaueko 10.30etan. Jean Genet frantziarraren antzerki lanean oinarritu dira *Virago* taldekoak oraingoan. Mari Romero (Solange), Leire Madariaga (Clara) eta Esti Millan (La señora) izango dira taula gainean.

## Deiak

▼ **Erakusketa.** Txema Muñoz eta Jose Martinez Romáñen argazkiak Nahikari tabernan.

▼ **Piraguismo** ikastaroak uztailean zehar Albinan. Argibideak 76 18 85 (Alex) telefono zenbakian eguerdi partean, ordu bietatik 3retara.

▼ **Balnearioak.** 65 urtetik gorako gipuzkoarrentzat egonaldiak Zestoa (urriaren 1etik azaroaren 30era bitartean), Arnedillo (azaroaren 6tik 20ra) edota Fiteroko (urriaren 20tik azaroaren 30 arte) balneariotan. Izen-ematea uztailean eta abuztuaz izango da zabalik eta argibideak 900-43 43 43 doaneko telefonoan jaso daitezke.

## Ogia

▼ **Igandea 23:** Bolintxo.

▼ **Asteartea 25:** Mizpildi.

## FARMAZIAK

▼ **Ostirala 21:** Estella/Amezua.

▼ **Larunbata 22:** Camacho/Azik.

▼ **Igandea 23:** Camacho/España.

▼ **Astelehena 24:** Guallar/Trizua.

▼ **Asteartea 25:** Estella/Amezua.

▼ **Asteazkena 26:** Camacho/Azik.

▼ **Osteguna 27:** Estella/España.

# PINTURAS BERGARA

# PB

Aranerreka, 32 behea. BERGARA.  
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • GARBIKETAK •  
• APAINKETARAKO PINTURAK • ERROTULOAK • etab...

# Santamainak

## Jose Mari LARRAÑAGA

JAI BATZORDEKOA

Astlehenean hasi ziren Santa Marinako jaiek jarraipena izango dute astebukaera honetan. Jose Mari Larrañaga Jai Batzordeko ki-deak ekitaldien berri eman digu.

- Zer da ostiraleko petrikol dastaketa?


- Hori ostiralean egiten den potea izendatzeko gure arteko bro-ma bat da. Txikiteoa jarri beharrea petroleo hitzarekin jokatzu geuk asmatutako hitz bat besterik ez da.

- Eta boccian zenbat partaide izango dira lehian?

- Oraingoan 20 bikotek eman dute izena eta partaideen artean munduko txapelduna den legazpiar bat izango da. Elbarritez gain, gainontzeko jendeak ere jokatzeko aukera izango du. Jakingo duzue, petankaren antzeko joku bat da eta ostiraleko txapelketan maila haundiko jokalaria bilduko dira.

- Eta gauean herri afaria...

- Bai, 150 txartel jarri genituen salgai eta salmenta bide onetik doa.



"Herri afarirako 150 lagun espero dira".

- Musika ere ez da faltako aurtengo jaietan.

- Horrela da. Ostiralean Gozategi anaien emanaldia izango da eta larunbaterako, berriz, Protokolo orkestra iragarrita dago. Gozategi anaiek trikiti piezak eskaintzen dituzte eta Protokolo, berriz, kanp musika jotzen omen du: valsak, tangoak eta horrelakoak, dantzatzeko oso aproposak.

- Zenbat haur izango dira tanborradan?

- 100 bat neska-mutiko. Asteazken zehar entsaiatzen izan dira eta ilusio haundia dute.

## EGITARUA

### OSTIRALA, 21

18.30: Bolo txapelketa Jubilatuetan.

19.30: Petrikol dastaketa, trikitalariek alaituta.

20.00: Boccia txapelketa.

21.00: Herri afaria.

23.30: Gozategi anai-arrebek alaitutako dantzaldia.

### LARUNBATA, 22

12.00: Tortila lehiaketa eta kukainak.

16.30: Txirrindulari lasterketa.

18.00: Waterpolo partidua igerilekuan.

18.30: Ezkondue eta ezkongabeen arteko futbol partidua Ipintzan.

19.00: Trikitalarien kalejira.

20.00: Salbea Santa Marina elizan.

20.30: Haurren danborrada.

21.30: Suzko erroberak.

23.00: Protokolo taldeak alaitutako dantzaldia.

### IGANDEA, 23

09.00: Diana Udal Txistulari Bandarekin.

10.00: Plater tiraketa San Juanen

10.30: Udal Musika Bandaren kalejira.

12.00: Herri Meza Santa Marinan.

12.30: Udal Musika Bandaren kontzertua.

12.30: Salda eta txorizoa Simon Arrieta plazan.

13.00: Xamatx taldearen dantza erakustaldia.

17.00: Sari banaketa Jubilatuetan.

17.30: Ginkana Irala ikastetxean.

19.00: Txirrindulari lasterketa.

20.00: Txokolatada Matxiategin.

### ASTELEHENA, 24

17.30: Merienda eta sari banaketa danborradan parte hartu dutenei Lasai Tokin.

**"100 bat haur arituko dira zapatuko danborradan"**

Zure  
konfidantzako  
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

## Bergarar guztion alkate?

Ia bi hilabete pasa dira maiatzeko hauteskundeak egin zirenetik. Lehia gogorra izan zen, denok dagikunez, PNV eta HBren artean baina azkenean PNVk irabazi bazuen ere, bi alderdiok 7 zinegotzi lortu zituzten. Neuk bigarren aukerari eman nion botoa, oso emaitza onak jaso genituen baina zoritxarrez HB atean geratu da, kanpoko atean gainera. Bergarako bigarren indarra izan arren, M-28an 2.861 boto jaso arren, 7 udal ordezkari lortu arren, boto emaleen %34a lortu arren, Tripartitoaren erabakiak kanpoan utzi du. Oso adi jarraitu ditut hauteskunde ondorengo pausuak eta egian esan zenbait mugimenduk harrিতuta utzi naute:

- EAren jarrera lotsagarria izan da, beraien programan hau esan: "EAK Bergarako Udalaren kudeaketa eta gobernuan demokrazia bere osotasunean bultzatu eta ezarriko du, alderdi politiko guztien partaidetzaz", eta ondoren PNV eta PSOerekin bat egin eta HB baztertu dute.

- Victorianok lehenengo Plenoan esandakoak eta eginikoak hitz bi dituzte bakarrik: inkoherentzia eta autoritarismo sutua: "... eta bukatzeko, udaletxeko partaide guztiei, bai gobernuan daudenei eta baita oposizioan daudenei eta udal langileei, denei, euren kolaborazioa eskatuko nieke, gure helbururik nagusia Bergara aurrera eramatea delako".

Hitz hauek esan eta gero HBko ordezkariari hitza kendu eta alde egin zuen Pleno aretotik.

Udal korporazioak 17 ordezkari (eta ez agintari, Victoriano jauna) baldin baditu zergatik 7 kanpoan utzi? Zergatik ez guztio herriaren alde lan egin? Zergatik 2.861 bergararren borondatea baztertu?

Victoriano, zu ez zara bergarar guztion alkate, zure borondatez herriaren zati haundi bat baztertu eta mespretxatu duzulo. Segi bada honela agintzen, dena herriaren alde baina herriarekin kontaktzeke.

**GAZTE BAT NAN: 15.386.151**

## San Martzialgo jaiak

Dagokionari:

Edozein menpekotasunekin sentsibilizata dagoen bergarar bat naiz.

Alkohola izanik, azken ikerketa soziologikoez horrela azaltzen dutenez, gizarteak pairatzen duen kalte haundienetarikoa, San Martzial jaietako iragarkiaren azalak sortu zigun eragin negatiboarengatik gure ardura eta zentsura azaldu nahi dugu. Gure gazteen, eta azken finean, gure gizartearen onerako, gure jarrera onartzea eskatzen dugu gure ustez horixe baita herritar gehienek duten iritzia, aurrerantzean arduratsu eta kritikoa izan dadin kolektibo horren sentsibilizatea.

**A.Z. NAN: 15.283.054**

## Eskerrak Tripartitoari

Eskerrak PNVri, nazional mailan darman politika totalitarioa eta baztertzailera herri mailara moldatzeko erakutsi duen gaitasunagatik.

Eskerrak PSOeri, espainiar politika boterearen truke egiten duten alderdiak batzeko erakutsi duen gaitasunagatik.

Eskerrak EAri, ahulezia eta kol-darkeria botere ustel zati baten medioz estaltzeko egin duen saioagatik.

Eskerrak Tripartitoari, egunegun faxismoa Francorekin bukatu ez zela erakusten didalako eta sostengatzen duen sistema (demokratikoa beraien hitzetan) putre honekiko dudak nazka berrindartzen didalako.



**J.M. NAN: 15.395.111**

## OPORRETARA GOAZ

**Eskuartearen duzuen ale hau, uda aurreko azkena duzue, datorren astean ez baita BERRIGARARIK kaleratuko. Astekaria egiten dugun guztioz opor zoriontsuak opa nahi dizkiegu irakurleei. Era berean, datorren irailaren 8tik aurrera astero astero izango dugun zitara gonbidatu nahi zaituztegu. Bitartean, ondo pasa bakaziñoak.**

## Tiira biraka

GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



# Batzorde informatzaileetako presidentek izendatu Plenoan


## ◆ EAJren mendeurrena

Datorren uztailaren 31n EAJ-PNVk bere 100. urteurrena ospatzen duela eta, Bergarako EAJk hainbat ekitaldi antolatu ditu. Horrela, ordu batean meza izango da Monja Zaharretan eta ondoren, 14.30etan, bazkaria Batzokian. Bazkarira joan nahi dutenek Batzokian bertan eman beharko dute izena uztailaren 28a baino lehen.

## ◆ Erromesaldia asteartean

Asteartean Arantzazuko Santutegira ohizko peregrinazioa izango da. Iteera goizeko 9etan egingo da Beheko Estaziotik eta itzulia 8etan Loiolako Basilika bisitatu ondoren. Interesatuak izen-ematea Agirrebeñan (San Antonion), Garitanon (Zubiaurren), Zatoian (Barrenkalen) eta Aranzabalen (Zubietan) egin dezakete.

Asteleheneko ez-ohizko Plenoan Udalbatzak zinegotzi ez diren udal talde politikoen ordezkariak batzorde informatzaileetara joateko proposamena onartu zuen. EAJk, Eak eta PSE-EEK baiezkota eman zuten eta HB abstenitu egin zen botazioan. Jesus Mari Garitanok (HB) azaldu zenez, bere alderdia ez dago batzordeak ireki eta partizipazioa bultzatzearen kontra baina tripartitoaren azken mugimendua zela salatu zuen, *"Gobernu Batzordea osatzeko gure 7 zinegotziak alde batera utzi eta PSOE eta EAkoei erreztasun guztiak ematen zaizkielako. Guretzat jokaera negargarria da hori eta argi geratzen da zer ententitzen duzen demokrazia hitz horrekin"*. Garitanok, era berean, batzordeetara joateko kandidatoak aurkezteko tripartitoak jarritako 3 eguneko epea 7 egunetara luzatzea eskatu zuen eta jarraian Garitano eta Victoriano Gallastegi (EAJ) alkatearen arteko eztabaida beroa izan zen. Garitanok alkatea kritikatu zuen alkateak proposamen hori botazioaren aurretik egin behar zela



Udalbatza osatu zeneko artxiboko irudia.

esan zionean, aurreko Plenoan eztabaidatutako puntu batean botazioaren ondoren izan zutela eta hitzegiteko aukera. Alkateak, modifikazio bat zenez, proposamena botazioaren aurretik egin behar zela erantzun eta bestetan bezala eztabaidarako aukera izango dela gogoratu zion. Garitano eta Aitor Aranzabl HBko zinegotziek Gobernuaren kontraesanak salatu zituzten.

Batzorde informatzaileetako lehendakari izendapenen berri ere eman zen. Victoriano Gallastegik Hazienda Batzordea zuzenduko du, Javier Gabilondo Gober-

nazio burua izango da, Felipe Altunak Auzoetakoa eta Kulturaren, Luis Abajo (Jaiak), Xabier Zabaleta (Kirolak) eta Koldo Pereira (Euskara eta Hezikuntza) izango dira. Jose Antonio Etxeberriak (EA) Hirigintza zuzenduko du eta Alvaro Esparzak (PSE-EE) Gizarte Ongizatea.

Bestalde, deialdiaren premia kotasuna baieztatzerakoan, HBk ezezeko botoa eman zuen, Gobernuko alderdiek plenoak hiruhilabetero egiteko konpromezua hartu zutela gogoratuz. Maite Aristegiren ustetan asteleheneko deialdiak argi uzten zuen plenoak hilabetero egin behar zirela.

### JAIOTAKOAK

**Julen Etxaide Olaberria**

Uztailak 9

**Iosu Marzo Elguero**

Uztailak 15

### HILDAKOAK

**Francisca Gallastegi Ibarrondo**

Uztailak 19, 87 urte

## ETXAGI

J A T E T X E A


AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO  
MENUA, GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

## SURPE

### Taberna

Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA



## AKORT

- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorentzo, 7  
behea.  
☎ 76 50 39

### ◆ Liburutegia abuztuan

Kultur Etxeko udal liburutegia zabalik izango da abuztuko lehen eta azken astetan, goizeko 8etatik ordu bata arte. Era berean, uztailleko azken egunetan ere goizez bakarrik zabalduko da. Larunbatetan, berriz, itxita izango da.

### ◆ Orkestra Sinfonikoaren emanaldiak

Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoak bi emanaldi eskeiniko ditu astebukaera honetan, larunbatean 22.30etan Mutrikuko Parrokian eta denboraldiari amaiera emango dion kontzertua astelehenean 23.00etan Espoioian. Azken honetan programa honako hau izango da: *Tanbauser* (Opera martxa, Wagner), *Water music* (Haendel), *Don Gil de Alcalá* (Opera fantasia, Penella), *Williams selection* (Banda sonora, Alfredo Glez. Chirlaqueren egokitzea) eta *Leroy Anderson favorites* (Anderson).

### ◆ Humboldt buruzko ikastaroa

Eusko Ikaskuntzak "W. von Humboldt: Hezkuntza, Hizkuntza, Euskal Herria" nazioarteko ikastaroa iragarri du irailaren 5ean eta 6an Oñatiko Unibertsitatean. Argibideak 31 08 55 telefono zenbakian.

### ◆ San Martinetako tanborrada

San Martinetako tanborradan parte hartu nahi duten haurrek Kultur Etxean eman dezakete izena, 10etatik ordu batera eta 4retatik 9etara.



Asteartean eguerdiko 12etan gaztetxo eta alebinetzako txirrindulari proba jokatu da.

## Santiagoak Basalgo auzoan astebukaera luzean zehar

*Martitzena, Santiago eguna, egunik garrantzitsuena*

Basalgo auzoan Santiago jaiak ospatuko dira larunbatetik asteartera bitartean. Bihar larunbata goizeko 11 t'erdietan jaiari hasiera emateko kanpai-jotze eta etxalero botatzea iragarrita dago, eguerdiko 12etan ohizko txopo jasotzea eta arratsaldeko 4 t'erdietan, berriz, herri mailako plater tiraketa jokatu da.

Igandean, eguerdiko ordu batean, auzoko hildakoen omenezko Meza Santua, arratsaldeko ordu bi t'erdietan Gezalaga soinu-joleek alaitutako auzo bazkaria, gaueko 9etan afaria eta ondoren Gezalaga anai-arrebekin erromeria.

Astelehenean gaueko 9etan bertso afaria izango da. Bertan, Joxe Lizaso, Joxe Agirre bertsolariak eta Gezalaga anai-arrebak izango dira

eta afarirako txartelak Txuringon, gasolindegiko tabernan eta Meko-laldeko tabernan jarriko dira salgai.

Asteartean, Santiago egunean, goizeko 11etan Meza Nagusia izango da, eguerdiko 12etan alebin eta gaztetxoaren XIV. Basalgo Igoera txirrindulari proba jokatu da, 12 t'erdietan pelota partiduak izango dira, arratsaldeko 5 t'erdietan V. Bikoteen Dantza Txapelketa eta 6.30etan herri kirolak. Idi probetan Mutrikuko Gorixo eta Elgoibarko Iriarte izango dira lehian eta ondoren Euskadiko Kintopeko txapelduna den Aitzeta gazte mutrikuarra harriz jasotzen arituko da. Bukatzeko ahari jokoa egingo da eta egun guztian zehar Zarra eta Xapre soinu-joleak arituko dira.



**Matxiategi**  
**Elektragintza**  
**C.B.**

**ELEKTRIZITATE**  
**MATERIALEN**  
**SALMENTA ETA**  
**INSTALAKUNTZA**

Fleming Dokorea, 5  
☎ 76 19 94

**ANDONI**  
**ARANZABAL**  
**LAZCANO**

FINKA ADMINISTRATZAILEA  
Barrenkale, 7 1. Eskuma BERGARA  
☎ 76 03 46



# Osasun departamentuak eulien arazoa aztertuko du

*Gaur Jaurlaritzako ordezkariak etortzekoak ziren*

Aurtengo udan ere euliek zeresan asko ematen ari dira gure herrian. Azken urtetan gertatu den moduan, uda hasi bezain laister euliak modu sinistezinean ugaltu dira eta, azken astetan, Udaletxean herritarren keza ugari jaso dira.

Udaletik adierazi digutenez, gaur goizean Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Ingurugiro departamentueko ordezkariak etortzekoak ziren arazoa aztertuz. Bien bitartean, eulien jatorriaren inguruko bertsiotio ezberdinak zabaldu dira herri-

tarren artean eta dirudienez San Martzial aldean dauden eper eta txerri haztegietatik etor daitezke euliak. Bertako auzokideek ere, firma bilketa egin ondoren, beren protesta azaldu zioten alkateari. Honek zera adierazi digu: *"Udalak azken urtetan errepikatu izan den arazo horri behin betiko irtenbidea topatu nahi dio eta enpresei beharrezko neurriak har ditzaten eskatuko diegu. Soluzio bat topatu beharra dago herria oso kezkatuta baitago"*.



Kalean zein etxeetan eulien ugaltzea nabaria da.

## ◆ Bergarar lau presoren epaiketak irailean

Datozen irailaren 11n, 12n, 13an eta 14an Jose Ramon Aiastui "Txerra", Iñaki Arietaleaniz "Bizkai", Javi Lazkano eta Luis Etxeberria preso bergararrak Madrileko Entzutegi Nazionalan epaituko dituzte. Bergaratik autobusak etarko dira egunero eta interesatuek izena eman dezakete Arrano tabernan.

## ◆ Txirrinka bizikleta martxa Bergarara

Eguzki talde ekolojistak antolatutako Txirrinka bizikleta martxa datorren larunbatean, uztailak 29, gure herrira helduko da. *"Naturari bideak zabaltzen"* lemapean, laugarren edizio honek, besteak beste, Maltzaga-Urbina autopistak egingo duen kaltea ezagutu, aztertu eta salatzea du helburu. Larunbatean, ordubatean, partehartzaileei ongi-etorria egingo zaie eta, jarraian, trikitilariekin eta soinujoleekin kalejira egingo da. Datorren asteko ostegunean, ostiralean eta larunbatean, berriz, Maltzaga-Urbinarengatik inguruko informazioa jaso ahal izango da Plazan. Bertan Eguzkik landutako bideo bat eta panel informatiboak ikusgai egongo dira.

**Txema Muñoz**  
**Jose Martínez Román**



**ARGAZKI ERAKUSKETA**

**NAHIKARI TABERNA**  
**Bergara**

# LAN ESKAINTZA

**12-15 urteko gaztetxoentzat astialdi iharduerak antolatzeko PERTSONA BAT BEHAR DA. Egun erdiz. Interesatuek izena eman JARDUN Elkartearen (Masterreka, 13) edo 76 08 19 telefono zenbakira deitu, irailaren 15a baino lehen.**

## Hezkuntza

### Udako partikularrak

**- Zer deritzezu udako klase partikularrei?**

- Nere ustez ikasle normal batentzat ez lirateke beharrezkoak izan behar udako zein urteko klase partikularrak. Eskola orduak ondo aprobetxatzea nahikoa da. 8. mailara arte behintzat kurtsoa ondo atera daiteke lan ohitura batzuk sortuz: lana eguneratuta izan, zerbait irakurri eta apunteak ondo sailkatzea adibidez.

**- Baina badira partikularren beharra duten ikasleak...**

- Bi ikasle mota daude: batetik zailtasunak dituztenak eta bestetik kolperik ere jotzen ez dutenak. Baina hor problema bat ikusten dut: zailtasunak dituztenei zailtasun horrek beste zerbaitek eragiten dizkie eta hori gainditzeko ondo planteatu behar dira partikularren eta tutorearen arteko harreman zuzena eman. Bestalde, askotan maila ezberdinetako ikasleak biltzen dira eta hori ere ez da batere gomendagarria.

Kolperik jotzen ez

duten ikasleentzat, berriz, klase partikularrak balio gutxikoak izaten dira, gelan aprobetxatzen ez dutena eskolatik kanpo errekuperatzea zaila izaten baita. Neretako baliagarriagoa da lehen aipatu ditudan lan ohitura batzuk sortzea. Horretarako familiaren laguntza ere ezinbestekoa izaten da.

**- Nola eman daiteke laguntza hori?**

**"8. mailara arte behintzat, eskola orduak ondo aprobetxatuz, kurtsoa aurrera atera daiteke"**



Lan ohitura finko batzuk sortzea oso lagungarria izaten da.



**ANDONI ETXEBERRIA**  
(Hezitzailea)

- Ikasleek familiaren laguntza eta kolaborazioa ez badute, inor gainean ez badute oso nekeza da norberak bere buruari diziplina hori jartzea. Baina batzutan ikasleek ez dute giro berezirik etxean edota

gurasoek kanpoan lan giten dute eta ez dago jarraipen hori egiteko aukerarik. Haurrak sarritan askeegi bizi dira eta horren aurrean, gurasoek egin ezin duten lan hori kanpoko batek egin dezake, ikasleek egin behar dutena pixkat jarraitzeko.

**- Gurasoekin zein ariketa egin daitezke?**

- Zera gertatzen da: gurasoak okupatuegiak daude, edo seme-alabak saturatuta (ingelesa, musika, etab.ekin). 3-4-5 urteko hurrekin gurasoek puzzle bat egin edo ipuin bat irakur dezakete, aurrerako adinetan ordu erdi bateko errebaso egitea gomendatzen da eta 5. mailatik aurrera eguneroko lanak egin, lanak ondo antolatu, agendatu bat egin eta horrelakoak. Bestalde, telebista ez da txarra baina egoki erabiltzen jakin behar da.

**- Udan zer egin dezakete ikasleek?**

- Uda beste aktibitate batzuetan okupatzea ondo dator (kirola, informatika, irakurketa, etxeko lanetan lagundu... etab.). azken batean diziplina ohitura hori galdu ez dadin. Eta partikularrak bereziki 1 edo 2 asignatura utzi dituztenei gomendatuko nizkieke, azterketa gainditzeko efikazak izan baitaitezke. Kurtso osoa gainditzea berriz, ia ezinezkoa da.

**GISASOLA** BURDINAKI DENDA

*"Erratzu"*

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

*Kizkur*

**ILEAPAINDEGIA**  
**SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

# 50 bergarar hauek dute Berrigara bisera buruan



**Aldameneko zerrendan agertzen diren 50 horiek jasoko dute doan Berrigara bisera eder bana, eurak asmatu baitituzte aurreko alean jarritako galderak. Datorren asteazken goizean jaso ahal izango dituzte Berrigararen bertan. Beraz, zerrendan agertzen bazara etor zaitez asteazkenean Berrigarara. Tokatu ez zaizkizuenek ere izango duzue gorri, urdin ala beltz koloretako bisera jasotzeko aukera. Igerilekuetako izozki salmenta postuan erosi ahal izango duzu 500 pzt.a ren truke. Animo!!**

- JAIME GARCIA
- GORKA LARRAÑAGA
- AMAIA VELEZ DE MEND.
- IOSU HERRAN
- KONTXI UMEREZ
- ANDER LABORDA
- AITOR AMENABAR
- AINHOA ZAFRA
- ANDONI SOTIL
- ARKAITZ AMENABAR
- ION IGARTUA
- YOSU ALKORTA
- XABIER AZKARATE
- ASIS PEÑA
- ENERITZ FERNANDEZ
- LEIRE GURIDI
- AITOR AZKARATE
- ARRITXU BARRUSO
- ROBERTO GIL
- AMAIA LAZKANO
- AITOR SOTIL
- OIHANA ALZELAI
- AITOR OLABARRIA
- ANDER AZKARATE
- MADDI LASKURAIN
- ENERITZ IBARGUREN
- MARGARI ARREGI
- MARIA CORRAL
- IOSUNE AZKARATE
- ASIS IRIONDO
- IBON AIZPURUA
- IÑAKI ZABALETA
- GORKA ORTEGA
- JON ALVAREZ
- AITOR LASPIUR
- ANA ILARDUIA
- ANDER MURUA
- MARISOL GARATE
- IRUNE AGIRRE
- CARMEN APERRIBAI
- MAITE TOLEDO
- KEPA GUENETXEA
- AITOR PAYROS
- BEGOÑA SANCHEZ
- AMAIA MADINABEITIA
- XABIER LARRAÑAGA
- MARITERE LASPIUR
- MALEN GURRUTXAGA
- PELLO ORMAZABAL
- IÑAKI SOLOGAISTUA

# Zuk ere izan dezakezu 500 pezetaren truke

# Patxi Azkargorta

**Patxi Azkargortak pelota izan du beti buruan. Jokatzeari laga ostean, txapelketak antolatzeari ekin eta lan eta lan jarraitu du, mutikoekin batera eta bestera, e.a. Pelota munduan egindako lanagatik Azpeitian 92an ahaztuko ez duen omenaldi beroa jaso zuen. Gerra aurreko ikastolan ibilia da, gartzelan egona, Altxasu elkartearen sortzaileetako bat... Bizitza oparo eta emankor honetako 45 urteetan betiko laguna izan du ondoan, bere emazte Julita Urrutia.**

## Azpeitiko bergararra

**B**ergararrak ala azpeitiarrak zarretela diozue?

- Azken 45 urteotan Azpeitian bizi gara eta dugun lanbideagatik (tindategia) jende asko ezagutu dugu eta jendeak ere ezagutzen gaitu. Azpeitiarrak garela esan dezakegu. Hala ere, Bergarara, Altxasu elkartera ia

astebukaerero joaten gara.

- **Patxi, gainera, elkartearen sortzaileetako bat zara.**

- Ia praka motzetan nenbilela egin genuen Gorla. Denborarekin, ordea, txiki geratu zen. Lagun batek beste elkarte handiago bat egiteko asmoa zegoela eta ea parte

hartu nahi nuen galdetu zidan. Horrela, 17 lagun elkartu, mila bana pezeta bota eta lehenengo lurra erosi genituen. Gaur egun jende asko dago txandan bazkide izateko.

- **Zergatik aukeratu zenuten Azpeitia?**

- Lanagatik, Azpeitian beste tindategirik ez zegoenez, berria zabaltzeko aukera ona zegoela iruditu zitzaigulako. Duela 45 urte ez zen orain bezala, asko aldatu da dena. Esaterako, orduan Azpeitian,

San Inazioetan izan ezik, helduta dantzatzea pekatua zen, bakarrik trikitixa egin zitekeen. Eta gu oso dantzariak ginen. Bergaran eta inguruetan makina bat dantza egindakoak. Bergaran Garizman dantza gosez egoten baginen, pentsa ezazu Azpeitian nola egoten ginen!! Aizpurutxon jendeak dantza egin zezan, musikoak mugarririk Bergarado Antzuola aldera pasatu eta Azkoitian ez zeudela esanaz jendeak dantza



"Pelota profesionalean dirua dagoenez, nik nahiago dut afizionatuei jarraitzea".

AGENTZIA:  
**J. ELKORO**

lbargarai, 2 behea  
Tfnoa: 76 57 85  
BERGARA

VITA

CAUDAL

**ZURICH TALDEA ASEGURUAK**

ZURICH



UNIBER

HISPANIA

Taberna Kafetegia  
**EHIZTARIAK**  
**LOS CAZADORES**

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta, 26 BERGARA



"Ezkondu aurretik "Viva la República", "Gora Euskadi Askatuta" eta horrelako esaldiekin paskinak banatzeagatik gartzelan sartu ninduten".

egiten zuen.

- **Nola gogoratzen duzu gerra aurreko ikastola?**

- Maria Oiangurennek sortu zuen eta orain Mozos farmazia dagoen lekuan zegoen. Sortu zenetik Francoren tropek itxi

zutenerarte ibili nintzen, 6 urtetik 10era. Edade desberdinetako neska-mutikoak genbiltzan, ez dakit baina baliteke 40ren bat izatea.

- **Zer egiten zenuen?**

- Denetarik ikasten ge-

nuen, baina gehien gogoratzen dudana geografia da: alde batean Euskalerriko mapa genuen eta bestean kontinente guzti-etakoak. Orduetik geografiarako afizio handia dut eta askotan erabiltzen ditut mapak, baina haiek

bezalakoak beste inon ez ditut ikusi. Han ikasitakoak sekula ez zaizkit ahaztuko.

- **Eskolak euskeraz ematen zenituzten?**

- Xabiartxo eta Loretegi berria liburuak bagenituen, baina beste batzuk gazteleraz zeudenez zenbait azalpen gazteleraz egiten ziren. Hala ere, gero gauza asko euskeratu egiten genituen. Orduan batuketak eta dena euskeraz egiten nituen, baina Francoren garaian erderaz ikasi behar izan genuen

**"Ondarretako gartzelako azken presoak bost bergarar izan ginen eta Martutene ere geuk inauguratu genuen"**

**BERGARA**  
Karrozeriak

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA  
☎ 76 12 31

**AZPEITXI**

Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

**Jatetxea**

eta orain hobeto moldatzen naiz erderaz.

**- Ezkondu aurretik, gerra denboran gartzelan egon zinen.**

- Bai, "Viva la República", "Gora Euskadi Askatuta" eta era horretako paskinak egin genituen, baina militarrek sutan, batek jarri zituen: "Ejercito, Policía Armada = Vampiros". Paskin honengatik gerra kontseilua egin eta bi bergarri hiru urteko gartzelaldia eta hiruri bi urtekoa jarri ziguten. Dena den, ez genuen zigorguztia bete, urte t'erdi egindakoan kalean ginen, izan ere, "Franco sí" edo "Franco no" galdeketan baiezkoa atera zen eta ospatzeko, erreinzidentek ez ginen eta lau urteko kondena baino txikiagoa genuenoi kondenaren laurdena jeitsi baitziguten.

**- Ondarretako gartzelako azken presoak izan zineten...**

- Bai, bost bergarri. Ondarretatik Martutenera 47ko maiatzaren 3ko goizaldean hasi ziren presoak eramaten eta gu azkenak izan ginen. Egun horretan lau eraman gintuzten, izan ere Martin Aranguren zaindarien laguntzaile izanik 15 bat egun beranduago eraman baitzuten. Beraz, azken-azkena Martin izan zen.

**- Harrez gero joan al zara gartzelara?**

- Bai, duela 3 urte jakin nuen Martutenen urte-

Patxi Azkargorta eta Julita Urrutia 18 urte zituztela hasi ziren irtetzen eta harrezkero elkarrekin bizi dira. Hiru seme-alaba izan dituzte, bi gizonezko eta emakumezko bat.

Ezagunena, dudarik gabe, Xabier, gaur egun Txileko selekzionatzaile dena.



an bitan, Santo Tomasetan eta irailaren 24an, jaia izaten dela eta pelota partiduak jokatzeko direla. Geroztik ni ere pelota federaziokoekin joaten naiz.

**- Pelotazale amorratua izan zara beti.**

- Txikitik hasi nintzen pelotan eta afizionatueta ere jokatu nuen. Jokatzeari laga arren, pelota

munduan ibili naiz beti: partiduak eta jaialdiak antolatzen, mutikoekin alde batera eta bestera... Orain Azpeitiko Ilunpe pelota elkarterko presidentea naiz.

**- Pelota partidu asko ikusten al duzu?**

- Pelota profesionalean dirua dagoenez, nik nahiago dut amateurri jarraitzea. Urretabizkaia anaiak, Muruamendiaraz,

Berraondok eta horrelako afizionatuek askotan profesionalek baino ikuskitzun hobea eskeintzen dute, ausartagoak dira, pelota hobeto erabiltzen dute... Nahiago dut hauen partiduak ikustea. Profesionalek badakite ondo jokatzeko, baina interesak direla eta pelota biziegiekin jokatzeko dute eta pelotariak pelota

**"Semea zein taldetan dabilen, gu talde hartakoak gara: lehen Españolekoak, gero Boliviakoak; orain Txilekoak..."**

**Iturkintz Berri**

**INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa**

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA

**LARREA**

**TABERNA**

Kale Barren, 17  
ANTZUOLA

menperatu beharrean, pelotak hartzen du menpean pelotaria.

- **Aita pelotazale amorratua eta bi seme-ak futbolariak?**

- Xabier edo Iñaki, bitako bat behintzat pelotaria izatea nahi nuen baina biek baloia aukeratu zuten. Gure etxean bi kirolak ikusten eta jarraitzen dira. Xabier tartean badago gainera, jarraitu ez ezik sufritu ere egiten dugu, Boliviara joan zenean eta... Semea zein taldetan dabilen, gu talde hartakoak gara: lehen Españolekoak, gero Bolivia-koak... orain Txileren jarraitzaile amorratuak.

- **Zer egiten duzu ohizko egun batean?**

- 10ak aldean jeiki, gosalduta eta orain, San Inazio bezperetan, tindategian lan asko izaten denez, laguntzera joaten naiz. Arratsaldean Tourra ikusi ostean beste bueltaxo bat egiten dut tindategira eta gero lasai-lasai pasioan Loiola aldera joaten naiz. Niretzat txarrena Aitonetara joan, eta han egon eta edatea da, ez zait batere gustatzen; zerbait egin beharra izaten dut.

## Ondarretako gartzelako azken presoak

**Patxi Azkargorta 1926ko apirilaren 18an jaio zen Bergaran. Mutikotan, Francoren tropak iritsi artean, ikastolan ibili zen Maria Oianguren irakasle zuela. Gerra hasi zenean aita gartzelan sartu zioten, tindategia itxi eta 10 urterekin Zegamako osabarenera joan zen artzain. Han urtebete egin ostean, aita gartzelatik atera eta berarekin hasi zen tindategian lanean. Egunean zehar astirik ez zuenez, afal ostean gaueko eskolara joaten zen; ahal zuen guztietan, berriz, pelotan egiten zuen. 18 urte zituela adin bereko Julita Urrutiarekin hasi zen ibiltzen. Artean senar-emaztegaia zirela Francoren kontrako paskin eta propaganda tarteko, preso hartu zuten. Beste lau bergararrekin batera, Ondarretako gartzelan egon zen azken presoak da. Martutenekoa estrenatu eta guztira urte t'erdian barruan egon ostean, 48ko Pilarika egunean atera zen. Tindategian jarraitu zuen lanean; bi urtera, hau da, 24 urte zituela Julitarekin ezkondu eta Azpeitira joan ziren bizitzera.**

**"Xaputarrak", Azpeitian jaioak dira euren hiru seme-alabak: Irune, Xabier eta Iñaki.**



Azkargortarrak orain dela bi urte inguru Osintxuko jatetxe batean bildu ziren.

**LONBIDE  
OINETAKOAK**



**Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA**

**Aldoka  
Maldoka**

**TABERNA**

**Kruz Gallastegi BERGARA**

**LARRAÑAGA  
eta ZUBIA  
Banatzaileak**

Errioxako ardoa, olioak,  
esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

**IBARGUREN PENTSUAK**

**Biona pentsuen biltegia  
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

# Zer egingo duzu oporretan? Nora joateko asmoa daukazu?



**Iñaki Mujika**

14 urte, ikaslea

Hendaiara joango naiz familiarekin eta gero astebete Bartzelonara. Abuztuko hilabete osoa kanpoan emango dut: plaiian, peskan, futboleant...



**Patxi Visitación**

56 urte, langilea

Ba abuztuan lana daukat Altos Hornosen. Uztailean egon naiz oporretan irteerak eginez: baserrira, plaiara, Gorlara...



**Julen Arzelus**

31 urte, langilea


Hamabost bat eguneko irteera bat egiteko asmoa daukagu baina ez dakigu nora, mendi aldera beharbada.



**Bego Sesma**

45 urte, langilea

Ba arazo bat daukagu: mutikoak 15 urte egin ditu eta ez du gurekin etorri nahi. Bestela Mediterraneo aldera joaten gara normalean.



**Nere Amaia Murgizu**

27 urte, langilea

Hemen geratuko naiz, ez daukat inolako planik oraingoz. Eguraldiak laguntzen badu irteerak egingo ditugu kostaldera eta jaietara.



**Tere Guridi**

34 urte, langilea

Zarautzera noa oporrak pasatzera. Ez dakit hilabete osorako joango naizen egun batzutan lan egin behar dut eta.

# Biltoki



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.  
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.  
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

**PHILIPS**



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.  
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.  
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.  
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K  
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.  
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.  
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA ☎ 76 43 51

**SONY**

TB, BIDEOAK, KAMARAK.  
HI-FI EKIPOAK.  
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96





## EHUn euskaraz

EHUko (Euskal Herriko Unibertsitatea) Euskarazko Errektoretzak duela lau urte euskara bultzatzeko hasi zuen proiektuan, irakasleen prestakuntza nabaria izan da, baita euskarazko liburen argitalpen kopurua ere. Hala ere, itzulpen prozesua nagusitzen da eta honek arazo ezberdinak planteatzen ditu. Alde batetik garestia dela (600-4.000 pzta. bitartean orrialdeko) eta bestetik, itzulpen kalitatea ez dela oso ona. Horrez gain, irakasleak prestatu behar dira, gero beraiek adieraziko baitiete ikasleei liburu horien esanahi eta edukia.

Horrela, EHUn orduko egitasmoetariko bat urtero liburu kopuru jakin bat argitaratzea izan da. Gaur egun bertan, plazaratzen diren argitalpen guztien % 36 euskaraz da. Plangintza honek euskarazko liburuak kalera- tzeke bi aukera ditu: liburuak sortzea edo berauek itzul- tzea. Itzulpengintzaren bidea jarraitzea erabakitzen de- nean, aukera posibleak honetan aritzen diren elkarte gutxi batzuk eta 500 bat enpresa dira.

Baina itzulpen mailan eragozpen batzuk aurki ditzakegu. Bata, kalitatezko itzultzaileen urritasunaren aurre- an edonor itzultzaile izateko prestutasuna gehiegizkoa dela. Bestea, irakasleen euskarari buruzko prestakuntza mahai gaineratu beharra dagoela, itzulpena beti ere subjektiboa baita eta esaldiaren izpirituan sakondu behar- ra dago. Azkenik, terminologia zehatz bat erabiltzean, behar adinako ziurtasuna lortzea zaila denez, oztopo bi- hurtzen da.

**Maria GOMEZ**



## Indurainitis

Ezbeharren bat gertatzen ez bada, edo bere arerioek orain arte erakutsi ez dutena agerian uzten ez badute, Miguel (edo Mikel, zuek ikusi) Indurainek Tourra irabaziko du datorren igandean. Bosgarrena izango du.

Hurrengo egunean, Euskal Herriko egunkariak, aber- tzaleek behintzat, Atarrabiako euskal txirrundularien izu- garrizko garaipena goraiatu dute. Euskal Autonomi Elkarteko prentsa espainolak berriz, euskal herritar eta gainera espainola den Villavakoak lortutakoak zenbateko garrantzia duen aipatu dute. Jarrai dezagun erre- pasoarekin. "El español..." esaldiarekin hasiko dute ber- ren azken kronika Madril aldean argitaratzen diren berri- paperek, eta kirol espainolarentzat bosgarren garaipen honek suposatzen duena azalduko dute. Ez dago gaizki. Azkenik, espainolen artean espainolena den ABCk, Francoren garaian Españak (handiz) mundu osoan izan- dako arrakasta gogoratuz, Indurain (de Villava, navarro y español) inperioaren izenean, beste guztien gainetik nagusitu dela gogoraziko digu. Olé.

Indurain beste edozer gauzaren gainetik kirolaria de- nez, ez da bustiko. Ez du inoiz egin. Bera zer sentitzen den galdetzen badiote, "mmm, no se, es que... Panta- ni..." erantzun eta lasai asko geldituko da. Horretarako da kirolaria, ezta? Bitartean, beste guztiok Indurain gure herrikoa dela esaten segituko dugu. Norbaitek orain de- la 200 urte bere senide bat Bergaran bi egunez bizi zela ere esango du, eta denak pozik. Beno, udako kulebroia den honek ez zaitzatela harrapa, eta udazkenara arte.

**Mikel LIZARRALDE**



**LAGUN ARO**  
ASEGURUAK



**AGENTEA-DELEGATUA**

**Ramon Iraegi Eguren**

**Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)**

**Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxa: 76 41 54**

**ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00 Larunbatetan: 9.00-13.00**

**UDAKO ORDUTEGIA: Uztailaren 17tik irailaren 18ra arte.**

**Astelehenetik ostiralera: 9.00-13.00**



TOURRA 95



EGIN

Beheko argazkian, ezkerretik eskumara: Pedro Delgado, Aitor Garmendia, Jose Antonio Etxeberria, R. González Arrieta, Juan Luis Arregi, Javier Moracho eta Fernando Otaño. Makurtuta, Martin Etxeberria (Argazkia: Iñaki Pedrejón). Beste argazkietan, Unai Aranzabal, Jokin Elkoroberezibar eta Ramontxo G. Arrieta.



EL DIARIO VASCO

■ **Tourreko protagonistak**

Bergararrak Tourraren inguruan antolatutako kineietan nabaritzen ari dira. **Jokin Elkoroberezibar** 27 urteko bergararrak dagoeneko 100.000 pezeta irabazi ditu El Diario Vasco

egunkariak antolatutako Super Tour izeneko porran bi etapa irabazi ondoren. Horrez gain, sailkapen orokorrean 7. postuan dago eta azkenean garaipena lortuz gero, milioi bat pezeta eskuratuko luke. Bestalde, **Unai Aranzabal** 9 urteko gaztetoak mendiko bizikleta bat irabazi du Egin egunkariko porran. Tourraren amaieran egingo den zozketan ere sartuko da Unai eta beste bizikleta bat lortzeko aukera izango du. Zulle omen da Unairen txirrindulari faborittoa eta Euskal Bizikleta Bergarara etorri zenean berak egindako marrazki bat oparitu zion txirrindulari suitzarrari. Bestalde, badira urtero urtero Tourra ikustera joaten diren txirrinduzaleak, goiko argazkian agertzen den taldea lekuko. Aurreko astean lau egunez Tourra jarraitzen izan ziren eta Alpe D'Huezen **Ramon González Arrieta** beren laguna agurtzeko aukera izan zuten.



**Amets**



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50  
**AMETS TAILERRAK**  
 Berezano auzoa OÑATI



Irizar, 2  
 ☎ 76 14 95  
**JAUJA KIROLAK**



■ Gipuzkoako txapeldunak

**Xabier Egidazu** eta **Irantzu Lizarralde** (argazkian) 14 urtetik beherakoentzako Gipuzkoako Dantza Askatu Txapelketa irabazi zuten joan zen igandean Trintxerpen. 40 bikotek hartu zuten parte eta 13 urteko bergararrak izan ziren onenak. Xabier eta Irantzuk 6 urte zutenetik osatzen dute bikote. Bestalde, **Xabier Azurmendi** zegamarrak eta **Ianire Urbieta** bergararrak hirugarren saria jaso zuten. Beraz., dantza sueltoari dagokionez argi dago Bergarako harrobiak fruituak ematen jarraitzen duela.

**Zertan dihardute ba?**



**Javi Pérez** Bergara K.E.ko preferente futbol taldeko 35 urteko entrenatzaileak osatu du dagoeneko 1995-96 denboraldirako ekipoa. Pérezek 21 jokalaria izango ditu bere agindutara eta joan den urtetik 6 jokalarik bakarrik jarraituko dute taldean, Azkaratek, Osorok, Lazkanok, "Maki"k, Asierrek eta "Piti"k hain zuzen ere. Fitxaje berriak Roberto atezaina (Elgoibar), Luis Blanco defentsa (Eskoriatza) eta Ibarluzea (Elgoibar) eta Errasti (Ermua) aurrelariak dira. Jubeniletik 3 igoko dira, lehen errejionaletik beste 7 eta Arrieta taldera itzuliko da. Bergarako jokalariek aurreko astean ekin zieten entrenamenduei eta aurkezpena datorren ostiral arratsaldean egingo da Agorrosinen.

Mariaren Lagundiko eta San Martin ikastetxeko 14 ikasle Ane Iturralde begiralearekin batera, Udalekuetan euskara erabilera bultzatzeko ahaleginak egin dituzte egun hauetan.



■ Udalekuetan euskaraz!!

**Kikaundik** antolatutako udalekuetan OHOk 6. mailatik 8. mailara bitarteko ikasleek osatutako bi talde izan dira. Guztira, **Mariaren Lagundiko** eta **San Martin de Agirre ikastetxeko** 14 ikasleek (B ereduko 10 eta D ereduko beste 4) hartu dute parte eta helburu nagusia beraien artean euskararen erabilpena bultzatzea zen. Hori lortzeko, hainbat iharduera egin dituzte, eta jolaserako tartea ere izan dute: untzien jokora jolastu dute eta euskaraz berba gehien egiten zutenek tirada gehiago egiteko aukera zuten. Untzi asko hondoratuko zituzten hauek... Udalekuak gaur amaituko dira eta **Ane Iturralde** begiraleak ikasle finenei domina bana emango die.

**EGUREN**  
**GESTORIA**  
 Maria Pilar Eguren Díez  
 Kolegiatutako administrazio gestorea  
 Simon Arrieta Plaza, 3 behea  
 ☎ 76 21 65 / 76 24 45

 **umelaga**  
**JATETXEA**  
**IGANDETAN ZABALIK!!**  
 San Antonio, 5  
 BERGARA  
 ☎ 76 20 21

# Maria Eugenia Basterra

**Maria Eugenia Basterrak 3 urte t'erdia darama Ecuador bidai-agentzian lanean. Paperetan bidaiz inguratuta egon arren munduko bazterrek ezagutzeko gogoz eta oporrek iristeko irrikatzen dago.**

- Oporrak noiz?
- Abuztuko 2. hamabostaldian 15 egun, beste 15ak aurrerago.
- Zer egiteko asmoa?
- Britainiara joango naiz.
- Zein eratako oporrek dituzu gustoko?
- Lekuak eta gauzak ikustekoak.
- Ezagutu duzun parajerik ederrena?
- Iaz Cariben kruzeroa egin nuen eta ederra iruditu zitzaidan.
- Nora ez zinateke joango?
- Leku guztiak dute merezi duen zerbaiz.
- Ametsetako bidaia?
- Indiara eta hilabete bat izanez gero antolatu gabeko bidaian, nire kontura.
- Norekin bidaiatuko zenuke?
- Ezagunen edo lagunaren batekin.
- Eta norekin ez?
- Txapa edo dena dakiela uste duen



*"Abuztuan Britainiara noa, baina nire ametsa Indiara bidaiatzea da. Ezin dut esan leku batera joango ez nintzatekeenik, dena ikusi behar da. Ez naiz antolatutako bidaia batean bakarrik joateko beldur, ezta hegazkinez ibiltzeko ere"*

- batekin.
- Bakarrik bidaiatu duzu sekula?
- Neure kasa bakar-bakarrik ez, baina antolatutako bidaietan bai.
- Zer da beti eramaten duzuna?
- Dokumentazioa, aseguruua, erropa gutxi eta argazki kamara.
- Bidaiatzeko lekuekin modak izaten al dira?
- Bai, aurten Europa erdira eta Margarita uhartera doa jendea.
- Eta zein lekuk galdu du?
- Arazoak dituztenak: Egipto, Turkia.
- Azken orduan beherapenak izaten dira?
- Bai eta ondo irtetzen dira norbaitek nora joan ez dakienean, eskaintza onak egoten direlako.
- Autobusa ala tren?
- Biak.
- Hegazkinez bidaiatzeko beldur?
- Gora-beherak, saltoak daudenean ez da atsegina, baina ez.
- Babesteko kremak ala bisera?
- Kremak, beharra dut gainera.
- Top lessa ala bainu-jantzia?
- Top lessa eta bikinia eta neguan bainu-jantzia.
- Hiru aholku?
- Dokumentazioa aldean eraman, informazioa izan eta transijentea izan.
- Zerekin ibili behar da kontuz?
- Lapurrekin, urarekin eta lekuaren arabera txertoak hartu beharra dagoela gogoratu behar da.

**GALLASTEGI**  
*Jostundegia*  
mahoizko lanerako jantziak  
San Pedro, 17 ☎ 76 10 85

**ZAPELAITZ**  
*Taberna*  
Eguneko menuak astelehenetik ostiralera  
San Lorenzo, 25 BERGARA

**SANTOS**  
**IRRATI-TB**  
**ELEKTRAGAILUAK**  
**SUKALDE ALTZARIAK**  
**ARGIZTAPENA**  
**ANTENA KOLEKTIBOAK**  
**TB, BIDEO ETA SOINU**  
**APARAILUEN**  
**KONPONKETA**  
Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

*Siaska*  
*Dena zure haurrarentzako*  
San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

**Garnish**  
**Bitxitegia**  
San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

**ETXEBIZITZA**

**Pisua** alokatzen da Gas-teizen. Ikasleentzat egokia. ☎ 76 14 60.

**Pisua** salgai Antzuolan. ☎ 76 60 39.

**Garaje** bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

**Baserria salgai** Elosun. ☎ 76 57 24.

**Garajea** alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87.

**Etxea salgai** Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

**Pisua** alokatzen da Deban udan. ☎ 76 58 91 (gauzez).

**Garajea** salgai prezio one-an. ☎ 76 03 70.

**Pisua** saldu edo alokatzen da Azkarruntzen. ☎ 81 36 58.

**Apartamentua** salgai Burdiñaten. ☎ 76 19 09.

**Garajea** alokatzen da San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

**Etxea** salgai Aranerrekan. ☎ 76 56 75.

**Garajea** salgai Burdiñaten. 3 milioi. ☎ 76 31 79.

**Pisua** alokatzen da San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

**Pisua** salgai Zarautzen. ☎ 78 19 50.

**DENETARIK**

**Roller aloha** karabana salgai. ☎ 76 58 59.

**Kawasaki ZXR 750** motor bat salgai. ☎ 76 42 47.

**Yamaha XT-E** Trail motorra salgai. ☎ 76 03 40.

**Mobilette Cady** motorra salgai. ☎ 76 13 11 (gauzez).

**Vespa** bat erosiko nuke. ☎ 76 06 06.

**Karabana** bat salgai (berri-berria). ☎ 76 10 09.

**Squier Stratocaster** kitarra saltzen dut. ☎ 76 15 07 (Iker).

**Honda CBR 600 F** motorra salgai. ☎ 76 34 10.

**Moulinex M-57** labea eta bi sutako kanpin sukaldea prezio onean salgai. ☎ 76 03 71.

**Ordenadorea** (386 SX 33) salgai. ☎ 76 04 22 (gauzez).

**"Benimar"** karabana oso egoera onean saltzen dut. ☎ 76 17 50 (goizez, astear-tetik larunbatera).

**Telebista**, bideoa eta diapositiba proiektorea salgai. ☎ 76 07 87 (gauzez).

**Daewoo** musika kataia salgai. CD eta 2 pletina. ☎ 76 23 82 (Mikel).

**Renault 5 GTS (SS-AH)** kotxea egoera onean salgai. 500.000 pezeta. ☎ 76 34 90.

**LANA**

**Tabernari** bezala lan egingo nuke. ☎ 76 41 94 (Amaia).

**UBI** arteko eta kontabilitate klaseak udan. ☎ 76 18 00.

**Frantsez** eta ingeles klaseak. ☎ 76 07 87 (Aran).

Haurrak zaindu eta etxea egiteko neska euskalduna behar da. ☎ 76 06 69.

**Kamarera** lan egingo nuke. ☎ 76 16 83 (Edurne).

**Etxeak** garbitu edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 10 00.

**Matematika** eta Zientzie-tako klaseak. ☎ 76 06 50.

**Aseguru** autonomia duen neska batek abuztuan lan egingo luke. ☎ 76 47 71.

**Etxe**ko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

**Neska** euskaldun batek etxe-ko lanak egin eta haur edo zaharrak zainduko lituzke. ☎ 76 16 22 (Nere Amaia).

**Algebra** eta fisikako klaseak (1.go "Teleko") hartuko nituzke. ☎ 76 15 07 (Eneko).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

**OHO** eta BBBko klaseak. ☎ 76 42 08 (Nere).

**Fisika**, kimika eta matematikako klaseak uztailean eta abuztuan. ☎ 76 44 34.

**Pianoko** klaseak ematen ditut. ☎ 76 50 59 (Mikel).

**Haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 46 14 (Carmen).

**Ordenadorez** lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

**REMENTERIA**

**Altzariak**

Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

**IGARO**

✓ Kosmetika eta oparigaiak

✓ Eder gela

✓ Bio Solariuma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

**EDEL**

**TAPIZDENDA**

*Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu*

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta, 14 BERGARA**

**KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07**

*Tomas Gezalaga*

**ANTZUOLA BERGARA**

• Apainketarako eta industriarako pinturak •

• Paper margotuak •

• Moketak eta tapizatuak •

*Kabutzia*

**ARRAINDEGIA**

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

# BONOFOTOA



## Beatriz Leturia

**Beatriz Leturiak** jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, joan zen astean egindako galdera berak asmatu baitu. Argazkian agertzen zen ermitaren izena eta bertako Ama Birjinaren irudiak eskuetan ze fruta zuen galdetzen genizuen eta erantzun zuzena honako hau zen: **San Kristobal eta madaria**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Beatriz Leturiari** eman dizkiogu. Zorionak!!

*Non aurkitu ditzakegu Bergaran hain ezberdinak diren bi iturri hauek?*

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri lehen bait lehen

**BERRIGARA**  
Errotalde Jauregia Bergara



## Bildurbarek txapeldun

■ Bildurbarek taldea Mongatxurraren aurka nagusitu zen, finalean 3 eta 2 irabaziz

■ Hirugarren sailkatua A Ze Flaxa izan da 8 eta 2 irabazi baitzion Angiozar taldeari


■ Juan Luis Etxaniz golegilerik onena eta Lauri Askargorta atezainik onena



**Bildurbarek** taldeak merezimendu osoz irabazi zuen Ipintzako txapelketa, joan zen ostiraleko finalean Mongatxurra taldeari 3 eta 2 irabazi ondoren. Final polita eta gogorra gertatu zen, Mongatxurra 2 eta 0 aurreratu baitzen Iban Etxeberriaren bi golen bitartez (lehenengoa penaltiz). Hala ere, Bildurbarekek ez zuen etsi eta 2 eta 1ekoa lortu zuen Juan Luis Etxanizen bidez. Josu Aranek binakoa ezarri zuen taldearen jokaldi polit bat burutuz eta 3 eta 2koa, azkenik, Asier Altunak lortu zuen Aranaren pase bikain bat aprobetxatuz.

**A Ze Flaxak** jaso zuen (1. argazkia) Pako Vallejoren bitartez hirugarren sailkatuaren saria. **Iñigo Pagaldaik** Angiozarren izenean (2. argazkia), ostera, laugarren sailkatuaren kopa jaso zuen. 3. argazkian ikus dezakezue **Juan Luis Etxaniz** (Bildurbarek) txapelketako golegile onenaren saria jasotzen (23 gol). **Lauri Askargortak** (Mongatxurra), bestalde, golik gutxien (4 gol) jasotako atezainari emandako saria jaso zuen (4. argazkia) eta **Abel Maestrek**, (Ogizun) azkenik, txapelketako jokalaririk beteranoenarena (5. argazkia).





VI. herri

olinpiadak


## Komentarioa



**Antolaketa lanetarako jendea behar da**

Aurtengo Olinpiadetan bestetan baino talde gutxiago aritu dira, baina etorri direnak oso ondo portatu dira. Arrakasta gehien izan duten iharduerak hockey patinak, boleibola eta mahai jokoak izan dira. Herri kirolean hasieran jende asko etortzen da eta gero poliki-poliki lagatzen joaten dira. Parte hartzaileen adinari dagokionez 16 urtetik 22 urtera bitarteko gazteak izan ditugu. 22 urtetik gorako kuadrilek utzi egiten dute eta pena bat da. Datorren urtean? Jende berria sartu behar da antolatze lanetan. Ekintza puntualetan ezezik jarraikotasuna behar duten antolaketa lanetan ere (Udalarekin egon, tokiak eskatu...) jendea behar da.

**EIDER LETE**  
ANTOLATZAILEA



Boleibola, Hockey patinak..., era guzietako kirolak Olinpiadetan.

## Sailkapena

1. KIB ..... 640
2. SOROPOTROAK ..... 620
3. BASERRI KOUK ..... 580
4. XURRUPAK..... 570
5. TXARRENAK ..... 555
6. CHEER LEADERS ..... 415
7. KABESTROS ..... 355
8. IN THE GARDEN ..... 345
9. SHAKTALE ..... 220
10. MONGATXURRA ..... 120
11. AKSI FOR EVER ..... 45

# Herri bazkari olinpikoa zapatuan plazan

**Zapatuan** Herri Olinpiadei agurra egingo zaie San Martin plazan egingo den bazkariarekin. Bazkariarekin joateko aurretik izena Pol-Pol tabernan eman behar da eta txartelak 700 pzta balio ditu. Bazkal aurretik, eguerdiko ordu batean plazan elkartuko dira Olinpiadetan parte hartu duten taldeak eta bazkaria 14.30etan izango da. Ondoren trikitilarietara gorpuzta astintzeko aukera izango da eta antolatzaileek ekitaldi sopsresa bat iragarri dute. Bestalde aste osoan zehar izandako ekitaldi guztietan normaltasuna izan da nagusi. Halere, joan zen asteburuan igerilekuan jokatuako frogetan Antzuolako jaietako bixamona pasa zuen batek baino gehiagok. Hauei bapatean kendu zieten bixamona Xurrupeko taldekoek, waterpolo jokalaririk bat ia ito egin

baitzuten. Hockey patinetako frogetan, berriz, espektakulu bikaina eskeini zuen Soropotroetako jokalaririk batek bere sarerik gabeko erorketekin. Hori gutxi balitz, espektakulua ikusten trankil asko zegoen neska baten gainera erori zen halako batean eta askoren komentarioa izan zen ligatzeko era berri bat izango omen zela...





## BERGARAKO IGERILARIAK BIKAIN GIPUZKOAKO TXAPELKETAN

Bergarako igerilariak bikain aritu dira joan zen asteburuan Ordizian jokaturako Gipuzkoako txapelketan. Eneritz Muguruzak urrezko 3 domina lortu zituen, Agurtzane Crespok, zilarrezko 2 domina eta Eider Balzategik, azkenik, zilarrezko domina bat.

## PIRAGUISMO TRABESIA ARRAKASTATSUA

Orain dela bi aste jokatu zen Saturraran-Deba II. Piraguismo Trabesia antolatutako Beti-Busti elkarteak gustora geratu da parte hartze handia izan zelako. 40 minuturen barruan egin ahal izan zuten trabesia, iazko denbora 2 minututan jaitsiz. Antolatzaileek, Deba, Mutriku eta Bergarako udalen, Debako Gurutze Gorria eta Udaltzaingoa eta Surra Irratizaleen laguntza eskertu dute.

## X. LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

Labegaraietako futbito txapelketarako izena emateko epea datorren irailaren 5ean amaituko da. Talde bakoitzak 5.000 pzta ordaindu beharko ditu, izen ematea Udaltzaingoa egin beharko da eta derrigorrez talde bakoitzak jokalaririk gutxienez argazki bat aurkeztu beharko du bere izen eta abizenekin.

# Juan de Borja

## Bergarako waterpolo taldean

**Larunbatean arratsaldeko 18,30etan eta igandean goizeko 11etan Santa Marinako III. waterpolo txapelketa jokatu da eta goi mailako beste talde batzuen artean Bergarako izango da. Herriko taldean jokatzen du Juan de Borja gazteak.**

**- Zela ikusten duzu asteburuan zehar jokatutako behar duzuen txapelketa?**

- Joan zen urtean irabazi arren, aurten zaila izango da irabaztea. Iruñeko Larraina eta Portugaleteko Kirol Nautika taldeak oso onak dira. Biak estatu mailako lehen mailan dabilta eta espektakulu ona emango dute. Gu, Euskadi mailako 2. mailan gabiltza eta oso zaila izango den arren, emaitza onak lortzeko borrokatuko dugu. Hori bai Portugaleteko eta Iruñeko taldeek espektakulu bikaina eskainiko dute.

**- Waterpolo taldeak 3 urte daramatza jokatzen eta emaitza txukunak lortu dituzue aurten, ez?**

- Bai, gure mailan 6 talde zeuden eta 4. geratu gara. Kontuan izan behar da hasi ginenean ez genuela partidurik irabazten eta azkenak amaitu genuen. Kopa txapelketan lehen mailako taldeen aurka jokatu dugu eta egurra eman diguten arren, asko ikasi dugu. Gipuzkoako txapelketan gara, Hernani eta Azpeitiaren aurka triangularra

jokatu ondoren. Finalean 8 eta 6 irabazi genion Hernaniri.

**- Nolako izaten da waterpolo partidu bat?**

- Partidua 7 minututako lau zatitan banatzen da eta jokalariek baloia duen bitartean, ezin zaio ikutu. Baina baloia ez duenean denetik egin daiteke, halere arbitroak ikusten bazaitu, kalera bidaltzen zaitu.


**- Noiztik jokatzen duzu waterpoloan?**

- 2 urte daramatza jokatzen. Taldea igeria lagatzen zuten igerilariak

kirola egiteko sortu zen. 18 urte baino gutxiago dugunok waterpolo eta igeriketa tartekatzen ditugu.

**- Zer da zailagoa waterpolo ala igeriketa?**

- Waterpoloan gehiago nekatzen zara, baina politagoa da taldean jokatzen baita. Igeriketan bakarrik aritzen zara eta hankasartzeren bat egiten baduzu, errua zurea da. Waterpoloan, berriz, gola sartzen dugunean denok pozten gara eta sartzen badigute, alderantziz, denok dugu errua.



"18 urtetik beherakook waterpolo eta igeriketa tartekatzen ditugu".

**"Waterpolo igeriketa baino nekagarriagoa da, baina politagoa da taldean jokatzen baita"**

**BOLINTXO****Okindegia**

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA  
Ibarrekruz, 4 EIBAR  
☎ 76 63 42 ARRASATE

*Paper pintatuak - Pinturak*

**A. ZANGITU**

☎ 76 19 54 BERGARA  
☎ 79 91 82 ARRASATE

**KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07**

*Tomas Gezalaga*

**ANTZUOLA BERGARA**

• Zoruen kutxilatuta eta  
barnizaketa •

**BERGARA  
MARMOLERIA**

**PEDRO SALEGI OSA**

*Sukalde eta bainu enzimarak*

Uriarte, 8 BERGARA  
☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxes: 76 04 77

**HARATEGIA- URDAITEGIA**

**Sebastian Imaz**

**Bildotsa, txahala eta  
oilazkoak**

Harane Erreka, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA

Atsedeen zentrua

**LOKARTU**

**Koltxoi-denda**

**Orain SORALUZEN**

**Dibujoko klasetik**

**E**lementalian, mekanika alorrian ikasten ziharduan taldia da erretratukua, 4. maillan zebizen eta Anton Otaola zan eren tutoria. Erretratuan 17 urte dauzke eta dibujoko klase baten ostian Elementaleko kanpokaldera bajatu eta hor dare, orduko moduan.

**Ezkerretik eskumara:**

**Zutik:** Jose Luis Taboada, Markos Pereira, Aitor Pagaldai, Diego Soto, Pepe Vallejo, Martin Mulas, Iosu Zabalo, Roberto Polanco, Joseba Oregi, Xabier Lijò, Rikardo Pumar, Mikel Uribesalgo, German Marzana.

**Makurtuta:** Migel Anjel Mulas, Eusebio Merchan, Manolo Moral, Aitor Salaberria.

*Felipe Iñarra  
Erretratua: Markos Pereira*

**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
Fabrika: Zigarreta 1, 8. pabiloia ARRASATE  
Tfnoa: 76 55 02 Faxes: 77 11 30

**ZUBIETA  
elektragintza**

**MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK**

Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48



**GOGORATU!! ORDAINKETA ERRAZTASUNAK ETA %50 ARTEKO BEHERAPENAK ISTRIPUAK EZ IZATEAGATIK**

Inoiz ez du aseguru etxe batek halako aukera zabalik eskaini. MAPFRE MUTUALIDAD-i esker, hemendik aurrera izango duzu zer aukeratu. Edozein direla ere zure beharrak eta nahiak, zure autoarentzako neurriko aseguru aurkituko duzu beti. Hala seguru izan zaitez. Seguru eta babestuta. Zure atzean auto-asegurutan buru den etxea izango duzulako.



**Simon Arrieta, 3 BERGARA**  
☎ 76 28 79 / 76 18 80

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

*Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura*

**Doktoreak:**  
**CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ**



**Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18**

# HALTZARI

Bolu, 24 behea

BERGARA (Gipuzkoa)

Tfnoa eta Faxe: (943) 76 30 57



Aprobetxa ezazu

**FAGOR**  en

SUKALDE ALTZARIAK

*eskaintza*  
*paregabea*

Jantzi ezazu

*kolore berriekin*

zure

*kalitate*dun

sukaldea

ESKAINZA BEREZIA:

Uztailaren 15era arte, %30eko  
deskontuak modelo berri guztietan

